


## Joan Mari Torrealдай

### “Kultura ahantzia da nik lantzen dudana”



- 1.- Zergatik lantzen duzu euskal kultura?
- 2.- Etorkizun hobe baten aldeko datu objetiborik bai ote?

1.

Bihotza eta burua, biak, bat ditut nere lanean. Nere herria maite dut, eta bertantxe kokatzen dut nere langintza. Aukera hau, noski, aurretikako aukeratxo askoren fruitu da.

Aukeratu dugun lana “iluna”, “nekosoa” eta “etorkizun handirik gabekoa” dela?

Iluna eta nekosoa, bai, herrigintza delako, hots, gizarte-prozesu sakona bere funtsean. Iluna eta nekosoa, baita, inguratzen eta zapaltzen gaituen gizarte mamutzar honek baztertu egiten gaituelako. Euskal kulturarik egon ere ez dago mundo zabalarentzat, sistemak ezarritako **black-out** delakoaren erruz.

Etorkizunik gabekoa dela gure langintza?

Ez dakit. Baliteke. Ongi dakit jakin zibilizazioen hilerrria dela historia. Historian zehar itzali diren (edo hil dituzten) kultura horietako bat

izango ote da gurea ere? Esan dezakedan gauza bakarra zera da, alegia, hain zuzen holakorik gerta ez dadin gabiltzala lanean. Zer esan besterik etorkizunari buruz?

Kultura ahantzi, baztertu eta agian bizilaburreko hauxe da nik lantzen dudana, aurrera atera nahi dudana. Eta badut arrazoirik horretarako, geurea izateaz gain. Kultura minoritarioa da gurea, eta horregatixe aukerakoa. Gizonaren tamainakoa bait da, “bizigarria”. Zer antidoto hoberik kultura menperatzaileak dakarren uniformizatzeari, berdintzeari, erraldoikeriari?

2.

Etorkizunari antzemateko orduan datu objetiboan bilaketan erdi galdua aurkitzen naiz, egia esan.

Gure kulturaren geroan uste onik izateko arrazoirik finkoenak azken urteotako ibilaldian aurkitu ohi ditut.

Ez dakit noraino iritsi gaitzkeen, gure kulturaren (gure herriaren) pisua hain eskasa delarik, nahiz bere horretan ikusita nahiz gure gaineko kulturarekin aldeztuta. Baina, - hau ere konstante hartzeko da - dugun dinamika gure abiada ez da txantxetako. Ikusi besterik ez, duela 25 urte zertan zen euskal kultura, euskara bera. Harrez gero egin dugun aurrerakada haintzat hartu behar dugu. Tresna hain eskasekin lan gaitza egin dugu. Hortxe oinarritzen da nere uste ona. Orain, tresna eta prestakuntza hobeak ditugularik, indar gehiago egiteko kondiziotan gaudeke. Ez ala?

Dena den, inguru-munduaren indar-erlazioa dagoen honetan diraeino, ez dut uste etorkizun distiratsurik dukegunik. Baina, halere, gertu gaude lanerako, pesimista aktibo bezala lan egiteko.